



Mateo iritsi da

2.
edizioa



María Ayesa Usechik idatzia eta ilustratua,
bere alaba Iratxe, Maitane eta Olatz Villafranca Ayesaren
laguntza paregabearekin.







Eskerrik asko Sonia Cirizari eta Miguel Ayesari, argitalpen honen maketazio-lana egiteagatik.

Mateo iritsi da



2020. urtean, poz handiz jaso genuen ipuin hau Magalen. Eskerrak eman genizkion egileari, María Ayesa harrera-amari, ipuin zoragarri hau helarazteagatik. Opari honekin, beren etxeko leiho bat irekitzeko aukera eman ziguten, beren alaba Olatz, Maitane eta Iratxerekin batera, eta «zuzen-zuzenean» ikusi genuen zer den familia-harrera eta nola iritsi zen Mateo haien bizitzetara.

Gaur balitz bezala gogoratzen dut.
Ostiral arratsalde bat zen, eta eskolaz
kanpoko ekintzak bukatuak genituen.
Biharamunean, jai zen, eta asteko
familia-planik goxoenaren unea zen
guretzat: pizza, filma eta krispetak.






Gogoan dut egun hartan, pizza labean zegoela, amak eta aitak hiru ahizpoi deitu zigutela eta egongelan elkartu ginela. Zerbait kontatu nahi ziguten.


Beti bezala, erabaki garrantzitsu bat hartu behar zen bakoitzean (adibidez, nora joanen ginen asteburuan autokarabanarekin, asteko menua, zer film ikusiko genuen zineman), familia osoa biltzen ginen.

Egun hartan, baina, desberdina izan zen. Sofan esertzeko esan ziguten, eta arretaz entzuteko eskatu. Horrek esan nahi zuen kontu oso-oso garrantzitsua zela. Lehenbizi, amak kontatu zigun bere lantokitik hurbil bazegoela etxe bat eta etxe horretan haur asko bizi zirela beren gurasorik gabe, ezin zituztelako zaindu.




Guri pena handia eman zigun. Nire
ahizpa Iratxe eta Maitane ia
negarrez hasi ziren. Oso sentiberak
dira, eta bikiak. Dena den, orain jada
zortzi urte handi-handi dituzte.

Gero, amak esan zigun, lagundu
nahi bagenuen, haur bat har
genezakeela etxean, haren gurasoak
itzuli bitartean.



Guri oso ideia ona iruditu zitzaigun.
Barrez eta pozez oihuka hasi ginen.
Ez zen negoziatzeko beharrik izan.
Oso garbi geneukan. Laguntzeko
prest geunden.




Bat-batean, serio jarri nintzen, eta esan nuen:

–Oraingoan, neuk erabakiko dut nor etorriko den! Ez da egonen negoziazorik.

Ni hiru ahizpetan txikiena naiz. Olatz dut izena, eta kokoteraino nago ahizpa biki bat ez izateaz. Gainera, txikiena naizenez, ezin dut inoiz agindurik eman.

Eta, halaxe, sofan zutik jarri nintzen, eta esan nuen:

–Nahi dut bost urteko neska bat etortzea eta nire bikia izatea!



Uste nuen ezetz esanen zutela, baina denak ados egon ziren nire erabakiarekin. Alegia, konturatu nintzen ez nintzela ahizpa biki bat behar zuela uste zuen bakarra. Gau hartan, irribarre zabal-zabal batekin lo egin nuen.



Hurrengo astean, Gizarte Ongizatera joan ginen. Han, bi mutil jatorrekin elkartu ginen, eta zenbait galdera egin zizkiguten, nolakoak ginen jakiteko. Zerrenda batean eman genuen izena, haurren batek familia bat behar zuenerako.

Elkarrizketa bukatu zelarik, nik esan nien: «Nik ahizpa biki bat nahi dut!».


Eta badirudi ongi iruditu zitzaiela, zeren barrez hasi ziren. Gau hartan ere irribarre zabal-zabal batekin egin nuen lo!





Egun hartatik aurrera, bolada luze batez, goizero-goizero galdetzen nien amari eta aitari ea noiz etorriko zen nire ahizpa bikia. Eta, bolada luze batez, goizero-goizero erantzuten zidaten pazientzia pixka bat izateko.

Hainbeste pazientziarekin, azkenean ahaztu eta guzti ere egin zitzaidan ahizpa biki bat izanen nuela, eta, egun batean, galdetzeari utzi nion.



Urtebeteren buruan, nire aitaren
urtebetetze-egunean justu, Gizarte
Ongizatetik deitu ziguten eta esan
ziguten nahi bagenuen bazegoela haur
txiki bat pare bat urte gustura biziko
litzatekeena gure familian.

Izugarri kontent nengoen... Nire ahizpa
bikia, azkenean!



Astelehen goiz batean, gure etxetik hurbil dagoen txalet batera joan ginen, nire ahizpa bikia ezagutzera. Oso urduri nengoen! Gela batean itxaron behar izan genuen bostok, eta, handik minutu batzuetara, zaintzaile bat sartu zen, gure familiako kide berriarekin. Atea ireki zelarik, nik ezin nuen ahoa itxi. Zur eta lur geratu nintzen... Ez nekien zer esan!



Zaintzailea joan zelarik, bakarrik
geratu ginen... mutiko harekin. Bai,
ongi entzun duzu. Mutiko bat zen, eta
txiki-txikia, gainera. Hitz egiten ere ez
zekien eta! Akatsen bat izan behar
zuen. Eta nire ahizpa bikia?

Nik bost urteko neska bat nahi nuen,
eta ez biko mutiko txiki bat!



Sutan nengoen, eta hormari begira jarri nintzen, besoak gurutzatuta. Ama etorri zitzaidan, eta galdetu zidan ea zer gertatzen zitzaidan.

Nik esan nion hori ez zela ahizpa biki bat, mutiko txiki bat zela eta nik ez nuela mutiko txikirik nahi nire bizitzan. Eta are gutxiago mutiko txiki hain txiki bat, zerengatik nire lagunak onenaren ahizpa txikiak ere bi urte ditu, baina gutxienez badaki hizketan, eta badaki ibiltzen eta korrika egiten. Baina honek... deus ere ez! Ez zekien zutik ere egoten kasik.



Orduan, amak azaldu zidan ezin dela aukeratu zer neska edo mutil nahi dugun, haur bat sabelean izaten denean ere ezin dela aukeratu nolakoa izanen den. Kontatu zidan etxe horretan ume pila bat zeudela ez amarik eta ez aitarik ez zutenak eta laguntza behar zutela, eta segur aski guri eman ziguten mutikoak laguntza beharko zuela, haren amak eta aitak ezin izan ziotelako deus irakatsi.

Eserita geratu nintzen hormari begira, baina haserrea gutxitzen ari zitzaidan, zeren gero eta hobeki ulertzen bainuen zer gertatzen zen. Etxe hura ez zen denda bat bakoitzak nahi zuena aukeratzeko. Tonbola moduko bat zen! Zorte-kontua zen dena!

Itxarongelan geundela, nire ahizpei begira geratu nintzen. Haurrarekin jostetan ari ziren, eta, egia esan, grazia handia egin zidan nola egiten zuen barre eta nola saiatzen zen den-dena harrapatzen.

Orduan, haurrari begira geratu nintzen, eta, handik gutxira, hark ere begiratu zidan niri. Ederra izan zen!




Txakurtxo baten begiak zeuzkan. Pixka batean pentsatzen geratu ondoren, amarengana joan nintzen eta esan nion ados nengoela. Ez genuela zorte handirik izan eta ez nuela ahizpa bikirik izanen, baina ez zitzaidala axola haur txiki haren arreba nagusia izatea, zeren inoiz ez bainintzen izan inoren arreba nagusia.



Eta pentsatu nuen zertan jostatuko ginen,
eta erakutsi behar niola errugbian eta
futboleant eta beste hainbat gauzatan
jokatzen. Neuk zainduko nuen, neuk
emanen nion jaten, neuk jantziko nuen...
Amatxo maitea! Lanpetuta ibiliko nintzen...
Orduan, haurrak nola izena zuen galdetu
nuen, eta esan ziguten Mateo zuela izena.
Izen polita! Iruditu zitzaidan ongi
konponduko ginela elkarrekin.

Bi asteren buruan, Mateo gure etxera
etorri zen. Etxea prestatu genuen bera
hagitz gustura egon zedin. Nik jada ibiltzen
ez nituen jostailu asko berarentzat gorde
nituen, bera iristen zenerako. Zein pozik
zegoen! Lehen egunetik iruditu zitzaidan
nire bizi guztiko anaia zela. Egunetik
egunera pentsatzen nuen ez genuela
batere zorte txarrik izan. Ezta pentsatu
ere! Zorte ona izan genuen! Gero eta
gehiago gustatzen zitzaidan nire Mateo!



Dena den, gauza bat deigarria egin zitzaidan. Mateo hartu genuela esaten genuenean, mundu guztiak esaten zigun:

«BAI AUSARTAK!».

Nik ez nuen deus ulertzen. Ausartak? Baina zergatik?

Ausartak lehoi-bezatzaileak dira, marrazo artean ibiltzen diren urpekariak, hegazkinetatik paraxutarekin jauzi egiten dutenak, errusiar mendian inora heldu gabe ibiltzen direnak. Baina gu... Mateo hartzeagatik?

Ez du hozka egiten, eta, gainera, txiki-txikia da. Mateo EZ DA BATERE BELDURGARRIA!

Ni ausarta naiz ez dudalako negarrik egiten dentistarengana joaten naizenean, baina ez Mateo etxean hartzeagatik.



Jendeak beste hau ere esaten zigun:

Zergatik korapilatzen duzue bizitza?

**Nik ez nuen ulertzen zer esan nahi zuten.
Harik eta esplikatu zidaten arte biderik
zailena aukeratzea bezala zela, bide
errazago batetik joan beharrean.**

**Gure bizitza lehen bezain erraza da. Eta
Mateorena, zer esanen dizuet. Goitik behera
aldatu zaio bizitza. Lehen, oso bizitza zaila
zeukan, ez baitzeukan ez amarik, ez aitarik.
Nola izan daiteke bi urteko haur bat aitarik
eta amarik gabe bizitzea?**

**Mateo jator-jatorra da, eta oso ongi
portatzen da. Nire lagunena anaia txiki batzuk
baino askoz hobeki! Gainera, arras
maitekorra da: beti ari zaigu musuak
ematen, eta asko maite gaituela esaten digu.**

**Nire amak esaten du etxe batean jende asko
dagoenean ez dela nabaritzen beste bat
gehiago sartzen denean.**



Niri bost axola zait jendeak zer esaten duen. Nik dakidan bakarra zera da, niretzat Mateo superheroi bat dela, eta, niri superheroiak asko gustatzen zaizkidanez, Mateoren fan handiena naiz.

Eta ba al dakizue zergatik pentsatzen dudan superheroi bat dela? Bada, Mateo jaio zenean, haren amak eta aitak ez zuten zaintzen, ez zioten mainarik egiten, ez zioten ematen ez musurik eta ez besarkadarik, ez zioten irakatsi bizikletan ibiltzen, ezta patinetan ere, ez zuen ikasi igeri egiten, ez zioten ipuin bat kontatzen lo hartu aurretik, eta, erortzen zenean, ez zuten sendatzen eta ez zioten «senda mina» kantatzen. Eta nik pentsatzen nuen aita eta ama guztiek bazekitela zaintzen, mainatzen, musuak eta besarkadak ematen, bizikletan eta patinetan ibiltzen irakasten, igeri egiten erakusten, eta uste nuen beti kontatzen zutela ipuin bat lo hartu aurretik eta ume bat erortzean «senda mina» kantatzen zutela eta umea sendatzen zutela.




Horregatik, iruditzen zait Mateo handia dela, nahiz metro bat ere ez daukan altueran. Baina niri ez zait iruditzen gizajo bat denik edo pena ematen duenik. Bai zera! Kontrakoa! Ausarta izan da, eta oso ongi eraman du egoera. Nik ez nukeen lortuko, ezta nire gelako lagunek ere. Poz-pozik nago, beraz, Mateok baduelako familia bat zaintzen duena eta maite duena. Gainera, etxean asko garenez, sekula ez zaio falta konpainiarik, zeren hori da gehien behar duena. Eta ipuin bat ere oparitzen diogu gauero.

Mateo ausarta da, mutil handi bat, superheroi bat... ITZELA da! Urte batean ikasi du hitz egiten, jostatzen, barre egiten, begiratzen, ingelesez ere kantatzen, errugbian jokatzen, margotzen, puzzleak egiten, baina... Futbolean oso txarra da. Nik uste dut lehenago ikasiko duela hegan egiten.

Zoragarria iruditzen zait Mateo anaia gisa edukitzea. Nori ez zaio gustatzen superheroi baten arreba nagusia izatea?




Eta, egunen batean amarekin eta
aitarekin itzuli behar badu, jendeak ere
holako gauzak esaten ditu eta, pena
emanen dit, noski, eta negar ere egingen
dut egunen batean, baina, aldi berean,
oso ongi sentituko naiz, ahal izan dudan
guztian lagundu diodalako. Eta ziur nago
noizean behin ikusiko dudala eta inoiz ez
diola utziko gure anaia izateari.



Mateo etxera etorri eta bi urtera,
Gizarte Ongizatekoek deitu ziguten.
Esan ziguten Mateok bere aitarengana
itzuli behar zuela. Ezagutzen zuen,
astean arratsalde batez etortzen
baitzitzaion bisitan.




**Mateok eta beraren aitak maitasun
handia zioten elkarri, eta, azkenean,
Mateo berarekin bizitzera joan zen.
Hori zen gerta zekiokeen onena.**



Agur esateko festa eder bat prestatu
genion. Hala ere, nire bizitzako egunik
tristeena izan zen. Baita nire ahizpentzat,
nire amarentzat, nire aitarentzat,
Mateorentzat, Mateoren aitarentzat eta
ondoan izan genituen
gizarte-langileentzat ere.



Ekainaren bukaeran, festa bukatu
zenean, Mateo bere aitarekin joan zen.
Nire familiak eta nik autoan urruntzen
ikusi genuenean, mila puskatan hautsi
zitzaigun bihotza.



Egunek aurrera egin ahala, Mateo gabe bizitzen ohitu behar izan genuen, eta nire bizitzan egin dudak gauzarik zailena izan zen.

Egun batean, Mateok alde egin eta hilabete bat baino gehiago pasatua zela, haren aitak deitu zigun. Haien etxera joatea nahi zuen, Mateo ikustera. Ikusi genuelarik, lasai-lasai geratu ginen: Mateo primeran zegoen, bere familiarekin bizi zen eta oso jatorrak ziren, eta etxea ere ederra zen.



Eta, orduz geroztik, hilabeteen behin ikusten dugu elkar. Guk uste genuen haren arrebak izatetik haren lehengusinak izatera igaroko ginela, baina denak berdin jarraitzen du, zeren Mateorentzat beraren arrebak gara oraindik, eta nire gurasoak aita eta amatzat dauzka. Nire familiarentzat, betiko anaia eta betiko semea da Mateo gaur egun ere, eta, nahiz eta ez garen berarekin bizi, asko-asko maite dugu. Hori ez da inoiz aldatuko.

